

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO hitza ^{info}

Ostirala, 2012ko irailaren 7a. IX. urtea. 2.396. zenbakia. tolosaldea.hitza.info

Tolosako kaleek arte lanak eta eskulturak hartuko dituzte Eskulturastean

Eskubartzeko Artistikoaren Simposiuma hilaren 11tik 15era bitate izango da; Nestor Basterretxea eskultorea omenduko dute **02**



Euskara ikasteko eta erabiltzeko deia egin dute Tolosako Aitzol udal euskaltegitik

'Nik maite dut euskara' lelopean, matrikula hilaren 17a arte zabalik du euskaltegiak **03**



Golan, Alkizan haurrak lokotx biltzen. Behean, Zizurkilen Pirritx, Porrotx eta Mari Motots. A. IMAZ

Tolosako komertzio atseginena hautatzea, bezeroen esku

Tolosa&Co elkarteak martxan jarri du lehiaketa; saria urriaren 26ko galan banatuko dute Leidorren **03**

Mujika preso amezketarra gaur pasako da epailearen aurretik

Atzo Espainiaratu zuten Juan Mari Mujika; uztailean onartu zuten bere aurkako euroagindua **06**

Zizurkilen eta Alkizan ezin izan diote ostiralari itxaron jaietan murgiltzeko

Bedaion, Elduainen, Lizartzan eta Tolosako Izaskun auzoan gaur hasiko dira hiru egun iraungo duten jaiak; Zizurkilen herenegun zintzilikatu zuten Melokotoia, eta Alkizan, atzo lehertu zen suziria **05**



ELDUAINGO
UDALAK

Elduaingo Udalak herriko jaietara gonbidatzen zaituzte

- GIRO APARTA, SANOA
- MUSIKA MUNDIALA
- JATEKO UGARI

Ondo pasa,
baina pasatu gabe!

Kontseju Tatetxea

Hirigunea, 1. 20493 Elduain

Eguneko menuak

Opakizanak

Asteburuko menu ferriak

Plater kombinatut

943 68 33 27 / 656 710 073

Datorren irailaren 11tik 15era bitarte hitzaldiak, tailerrak eta erakusketak izango dira artearen inguruan

Iztea Urkizu Tolosa

Nestor Basterretxea eskultoreari eskertza omenaldia egingo diote Tolosako Lehen Eskulturasteko itxiera ekitaldian, datorren irailaren 15ean. Horren aurretik, ordea, arteari eta eskulturar bereziki eskainitako hamaika jardueraz bete da astea.

Tolosako Ekinbide Etxeak antolatu du Eskultura eta Eskuhartzeko artistikoaren I. Simposiuma, eta «helbururik behinena herritarrek artearengana hurbiltzea» izan da hasieratik, Nisa Goiburuk agerraldian azaldu duenez.

Ibai Iriarte Tolosako alkateak «hasiera-hasieratik oso aukera ona» iruditu zitzaizela nabarmendu du: «Aspaldikoa da Tolosak artearekin duen lotura, eta Tolosan museo asko dauden arren, hobereena kalea bera da». Horrela beraz, artisten tradizio honi jarraitpena ematearekin batera, Iriarte alkateak «belaunaldi berriei lekua emateko» modu egokia dela azpimarratu du: «Lehen Eskultuastea da, eta ez dadila azkena izan; oso-oso aberasgarria da espazio publikoak artearekin betetzea, eta arteak jendea espazio horietara erakartzea».

60. hamarkadari jarraituz

Nisa Goiburu epaimahaikide eta antolatzaileak 60. hamarkadan Euskal Herriak bizi izan zuen laraldi artistikoa gogora ekarri du: «Arte talde berriak sortu ziren, eta gaur egun nazioarte mailan ezagunak diren hainbat artista zeuden talde horietan: Txillida, Oteiza, Ugarte, Basterretxea, ... Hain zuzen ere, eskultore hauen lanek osatzen dute Tolosako kale-etako arte bilduma».

Modu honetara, eta 60. hamarkadako abangoardia joera haiei heltzeaz gain, belaunaldi berriei begira jarri nahi izan dute hasieratik antolatzaileek. Horretarako bidea izan da lehiaketa bera. Manu Uranga zumaieraren *Estolda arteko lerroak* lana aukeratu du epaimahaikak, eta irailaren

Lehen Eskulturasteak Nestor Basterretxea artista omenduko du



Ibai Iriarte, Ana Arretxe eta Nisa Goiburu, agerraldian. I. URKIZU

15eko ekitaldian emango diote lehen simposium honetako saria.

Bide beretik, ordea, antolatzaileek garrantzia berezia eman diote, lehen Eskulturaste honetako egitarauan, ikastetxeekin elkarlanean aritzeari. Hau dela eta, irailaren 14an, Hirukide, Laskorain, Orixe, Samaniego eta Uzturpe ikastetxeetako gaztetxoak kalera irtengo dira, artearekin zerkusia duten zenbait jarduera burutzera.

Batetik, fruta eta barazkiekin eskultura iragankorra egingo dute 9 urteko neska-mutilek: «Gaztetxo bakoitzak etxetik ekarriko ditu lehengaiak, eta gero Caritas-i, Abegiri eta Jakien Bankuari emango diete janaria», azaldu du Goiburuk. Era berean, 13 eta 14 urteko gaztetxoek artxibo aurreko plazan beren sormen lanak egingo dituzte.

Azkenik, lehen simposium honetara aurkeztutako lanen make ten erakusketa hilaren 6tik 16ra bitarte ikusgai izango da Topic zentroan, 11:00etatik 14:00etara, eta 16:00etatik 20:00etara.

↓ Egitaraua

IRAILAK 11, ASTEARTEA

■ **20:00.** Hitzaldi-eztabaida Topic zentroan: 'Hiriaren eraikuntza: erronka berriak arte partehartzean hiri eremuan'. Peio Agirre, Miren Jaio eta Pello Irazu ariko dira eztabaidan, eta moderatzailea Oteiza Museoko Juan Pablo Huércanos izango da.

IRAILAK 12, ASTEAZKENA

■ **20:00.** Hitzaldi-tailerra Topic zentroan: 'Eskultoreak bere ideia eta lanak landuko dituen tailerra'. Ricardo Ugarte eskultorea ariko da, eta Julia Otxoaren poemak izango dira. Solasaldia Box.A arte elkarteak gidatuko du.

IRAILAK 13, OSTEAGUNA

■ **20:00.** Hitzaldia Topic zentroan: 'Abangoardia eta tradizioari buruzko gogoeta batzuk: euskal eskultura mito gisa'. Hizlaria Asier Mendizabal eskultorea izango da, eta moderatzailea Jose M^a Armentia.

IRAILAK 14, OSTIRALA

■ **12:00-20:00.** Fruta eta barazkiekin egindako eskultura iragankorra edo alfonbra-mandala. Hirukide, Laskorain, Orixe, Samaniego eta Uzturpe ikastetxeetako ikasleek egingo dute eskultura, San Frantzisko pasealekuan.

■ **20:00.** Elkarrizketa lehiaketa-ko eskultore irabazleekin, Fronton jatetxean. Santi Eraso izango da aurkezlea.

IRAILAK 15, LARUNBATA

■ **12:00.** Lehiaketako sari bana-keta Topic zentroan. Lehen Simposiumaren azterketa eta itxiera ekitaldia. Nestor Basterretxeari omenaldia bere etengabeko laguntza eta eskuzabaltasunagatik, Tolosako ondare artistikoaren garapenean.

BESTELAKOAK

■ Alkizako Urmara museora bisita.

■ Eskultura tailerrak Box.A arte tailerarekin.

→ Laburrak

Igandetik aurrera zineko bonuak salgai izango dira

KULTURA › Igandean bertan hasiko da, iraileko zine foruma, eta horrekin batera, bonuak ere salgai jarriko dituzte. 17:00etatik 19:00etara bitarte leihatila zabalik izango da horretarako, eta ohiko zine saioen aurretik ere bonuak erosteko aukera izango da. 10 euroren truke, 10 film ikusi ahal izango dira, eta igandean, *Madagascar 3* eta *El Skylab* eskainiko dituzte, 17:00etan eta 19:30ean, hurrenez hurren.

Izaskungo Andre Mariaren eguneko meza igandean

ERLIJIOA › Irailaren 9an Izaskungo Andre Mariaren jaia ospatzen dute, urtero, Tolosaldean. Meza nagusia antolatu dute egun horretarako, Izaskungo elizan; 11:00etan hasiko da ekitaldia, eta Santa Maria elizako musika kapera ariko da bertan.

Musika eskolan datorren astean hasiko dira lanean

MUSIKA › Tolosako Eduardo Mokoroa musika eskola, ikasurte berriarekin batera hasiko da lanean. Horrela beraz, 2012-2013ko eskolak datorren astelehenean, irailak 10, hasiko dituzte.

Flashmoba izango da, bihar, Zerkasian

MERKATARITZA › Tolosa Merkat egitasmoaren barruan, Oh Yeahh!! flashmoba antolatu du Tolosa & Co merkatarien elkarteak, bihar eguerdirako. Horrela beraz, 12:00etan, negozio ideien lehiaketaren balizko irabazlea eta beste hainbat lagun, Zerkasura sartuko dira.

Udaberrin izena emateko azken eguna, gaur

KULTURA › Udaberri dantza taldeak urtero antolatzen dituen ikastaroetan izena emateko azken eguna izango da gaurkoa. Horretarako, Antonio Maria Labaien kutur etxera joan beharko da, 16:00etatik 20:00etara bitarte



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

Iragarki laburrak

LANA

■ **Zaintzailea.** Neska edo emakume bat behar dugu, umeak zaintzeko Ibarren. Interesa dutenek, dei dezatela 656 79 96 73 telefono zenbakira.

■ **Zaintzailea.** Etxeko lanak egin edota umeak zaintzeko, emakume euskaldun batek bere burua eskaintzen du. Interesa duen edonork, dei dezala 620 30 59 31 telefono zenbakira.

■ **Margolaria.** Tituludun margolariak bere burua eskaintzen du edozein lanetarako. Prezio ekonomikoa. Interesatuak, deitu 680 44 92 73 telefono zenbakira.

Aitzol euskaltegiko matrikula zabalik, 'Nik maite dut euskara' lelopean

Mikel Uzkudun Tolosako euskaltegiko zuzendariak euskara maitatzea, «jakitea eta erabiltzea» dela esan du

Imanol Garcia Landa Tolosa

Tolosako Aitzol udal euskaltegiaren matrikula egiteko aukera zabalik dagoela azaldu dute agerraldia eginez Iñaki Irazabalbeitia zinegotziak, Mikel Uzkudun zuzendariak eta Bakarne Telleria irakasleak. Aurten *Nik maite dut euskara* leloa jarri dute EAeko udal euskaltegiak ikasturtea iragartzeko. «Euskara maitatzea abialeku izan daiteke, eta 'nik euskara maite dut' esan dezakegu, eta sarri esan dezakegu gainera, baina horrekin ez da nahikoa», azaldu du Uzkudunek. «Jende askok esaten du 'nik maite dut euskara', baina zoritxarrez gaztelaniaz ari dira, eta maite duten hori erabiltzeko edo jakiteko ez dute urratsik ematen. Azterketa soziolinguistikoek euskara gero eta jende gehiagok dakiela diote, bai

na hori ez da islatzen eguneroko erabileran». Uzkudunek euskara maitatzea zer den zehaztu du: «Jakitea eta erabiltzea, edo beste modu batera esanda, dakienak erabiltzea ez dakienak ikas dezan».

Euskaltegiak azken urteetako eskaintza mantenduko duela azaldu du Uzkudunek: «Ohiko aurrez aurreko taldeak ditugu, hainbat erritmorekin eta mailekin. Autoikaskuntza egiteko aukera ere badago, eta ikasle bakoitzari eskaintzen zaio euskara ikasteko aukera pertsonalizatua». Administrazioan lan egiteko eskatzen diren perfilak gainditzeko prestaketa ere egin daiteke udal euskaltegian. Uzkudunek dioenez, «ikasleen %55ak gainditu ditu azterketak aurreko ikasturtean, eta horrek udal euskaltegiaren lehen hamar postuetan jarri gaitu». Matrikula zabalik dago eta epea hilaren 17a arte da; egun horretan hasten dira eskolak.

Eusko Jaurilaritzari kritika

Bere aldetik, Iñaki Irazabalbeitia zinegotziak aurtengo ikasturtea berezia dela azpimarratu du, 30



Iñaki Irazabalbeitia, Bakarne Telleria eta Mikel Uzkudun, ikasturte berriko leloa erakutsiz. I.G.L.

urte betetzen dituelako Aitzol udal euskaltegiak. «Urte guzti horietan milaka tolosar eta Tolosaldeko herritar pasatu dira euskaltegi geletatik», esan du Irazabalbeitiak, «eta emaitzak hor daude, eta nabarmendu nahiko nuke euskaltegiak duen eskarmentua eta eskaintzen dituen ikastaroen kalitatea».

Euskaltegiaren izena ematera animatu ditu herritarrak. Berezi ki biztanle multzo jakin batzuei egin die gonbitea: gurasoei, lan bila dabiltzanei eta Tolosaldera etorri direnei eta euskara ez dakitenei. Tolosaldean dagoen euskaltegi bakarra dela zehaztu du eta zerbitzua ez diola bakarrik Tolosari ematen gaineratu du. Aur-

tengo ikasturterako EAeko udal euskaltegi guztiek logo bateratua egin dutela ere aipatu du.

Bestalde, Tolosako eta eskualdeko biztanleek euskara ikasteko aukera bermatzea Tolosako Udalarentzat kostu handia duela esan du Irazabalbeitiak: «Gure departamenduaren aurrekontuaren zati handi bat udal euskaltegiaren jarduerari eustera zuzenduta dago. Euskalduntzea eta alfabetatzea ez da udalaren berezko zeregina, Eusko Jaurilaritzaren zeregina da, eta udalak bere gain hartu badu Eusko Jaurilaritzaren utzikeria historikoagatik da». Joera hori azken hiru urteetan «areagotu» egin dela esan du Irazabalbeitiak: «Udalak HABE-

tik jasotzen duen ekarpen ekonomikoa gutxitu zen joan den urtean eta aurten ere berriz gutxitu egingo da. Udalak ahalgin berezia egin beharko du berriz tolosarren eta Tolosaldeko herritarren euskara ikasteko eskubidea bermatzeko».

Horrez gain, Irazabalbeitiak euskara ikasteko doakotasunaren bidean «atzerapauso» bat izan dela salatu du: «HABEk kendu egin ditu ikasleei ematen zizkien diru laguntzak, eta horrek kezka sortu du udalean, eragiten duen kalte ekonomikoagatik». Gai horren inguruan, orain gutxi udalbatzak onartutako mozioa ekarri zuen gogora Irazabalbeitiak.

Datorren urriaren 26rako gala antolatu du Tolosa & Co merkatari elkarteak; bertan banatuko dute saria

Tolosako bezeroek aukeratuko dute aurtengo komertziorik atseginena

Itzea Urkizu Tolosa

Tolosako bezeroek eurek aukeratuko dute aurten, Komertziorik Atseginenaren V. Lehiaketa. Tolosa & Co merkatari eta erosleen arteko harremana gertuagokoa izan dadin aldatu du lehiaketa, eta orain arte merkatarien artean bozkatzen zutena, herritarrei zabaldu diete estreinakoz.

Juanjo Ruiz merkatariak krisi ekonomikoaren egoera nabarmendu du: «Egoera honek komertzioaren dotoretasuna azpimarratzeko beharra sortzen digu, eta era berean, merkatarien kementa eta gogoia ere agerian jarritze».

Horrela beraz, Tolosako merkatariaren aurpegiak atseginena erakusteko helburuz, datorren urriaren 26rako gala berezia prestatu du Tolosa & Co elkarteak, Leidor aretoan.

Iker Galartza tolosarrak gidari lanak egingo ditu ekitaldian, eta merkatariaren haratago, musika eta dantzaz gozatu ahal izango da emanaldian: Elena Arandiak abestuko du, Juantxo Zeberio arduratuko da musikaz, kultur etxeko dantza tailerra eta Udaberri dantza taldea oholtzara igoko dira, eta Tolosako Otxotea ere kantuan ariko da. Saioa, oso-osorik, 28 Kanalak grabatuko du.

Bertaratu nahi duten herritarrek, herriko komertzioetan banatuko dituzten gonbidapenak eskuratu beharko dituzte; denda bakoitzak bi gonbidapen izango ditu, eta bozka ematen dutenen artean zozketatuko dituzte sarreak.

Bezeroen errekonozimendua

Aurreko lau urteetan, Tolosa & Co elkarteak kideen artean aukeratzen zuten Tolosako komertzio-



Ixabel Mandiola, Juanjo Ruiz eta Mila Corral, atzo egindako aurkezpenaren. I. URKIZU

rik atseginena. Aurten, ordea, bezeroek hartu beharko dute erabakia.

Ixabel Mandiolak azaldu duenez, dendetan eskuragarri izango dira botoa emateko paperak, eta

bezero bakoitzak behin bakarrik eman ahal izango du bozka; datuak zehaztu beharko dira horretarako.

Irabazle suertatzen den komertzio jabeak diploma jasoko du,

eta Tolosa & Co elkarteak 2013ko kuota ez du ordaindu beharko.

Era berean, bezero parte hartzaileen artean otordu bat zozketatuko dute, eta galan jakinaraziko dute irabazlearen izena.

Naturaren jokoa

Beste hiru argazki HITZAren lehiaketan parte hartzeko; horietako bi Nafarroan ateratakoak eta bestea Norvegian

Erredakzioa

Pixkana iristen ari dira argazki gehiago XVI. HITZA Argazki Lehiaketan parte hartzeko. Oraingoan bi Nafarroan ateratakoak dira eta bestea Norvegian. Hiruetan naturak ematen duen jokoa ikusi ahal da.

Agurtzane Alkaiagak Nafarroako Allotz urtegiari ateratakoak bidali du: «Bertan agertzen diren neskatzak nire alaba Nora Ituar-te eta bere laguna Ane dira. Argazkia abuztuaren 18an atera genuen eta sekulako beroa egiten egun horretan. Freskatu

ederra hartu ondoren begira ze *kresta* dotorearekin atera zen uretatik? Bene-benetako punkia!».

Aitziber Lizarrak Nafarroako Mendazan ateratu zuen argazkia: «Hiru hankako artea. 15 metroko altuera du eta enborra hutsik du. Argazkia zuhaitz gainetik lurre-rantz enbor barrutik aterata dago. Gure haurra Peru azaltzen da bertan».


Arantxa Otegi Norvegian ateratako argazkia bidali du: «Bertan natura da nagusi: dena berdea eta ura alde guztietatik. Hori bai, abuztua izan arren, hotza egiten zuen».



Mendazan ateratako argazkia. AITZIBER LIZARRA



Allotz urtegiari ateratako argazkia. AGURTZANE ALKAIAGA



Norvegian ateratako argazkia. ARANTXA OTEGI




XVI. HITZA Udako argazki lehiaketa

Bidali zure argazkia
thargazkiak@hitza.info
helbidera!

Parte hartzaileen eta bozka ematen dutenen artean, HITZAko materiala zozkatuko dugu.

Sari mundialak!



1.Saria:
Elantxobeko Ogoño Mendi landetxean, bi pertsonentzako bi gaueko egonaldia.
Bermokiz,6 - 48310 (ELANTXOBE) Tel.: 657 716 648

2.Saria:
Tolosako Photokaferen eskutik, argazki-album analogikoa.
www.ardanazestudioa.com

3.Saria:
Tolosako Orue erretegiari, bi pertsonentzako otordua.
Samaniegi kalea, 3-Tel.: 943 65 19 11 - 20400 (TOLOSA)





Alkizan buruhandiekin hasi zituzten jaiak, atzo arratsaldean. A. IMAZ

Alkizan eta Zizurkilen hasi dira jaiak, adinekoen eta haurren gozamenerako

Bedaion, Tolosako Izaskun auzoan, Lizartzan eta Elduainen gaur hasiko dira festak, igandera bitarte

A. Imaz

Alkizan herriko jaiak haurren jolasekin hasi zituzten atzokoan. Plazan hamaika korrika saio egin ostean, txintxo-txintxo, *Mendiko altzorra* antzezilana ikustera joan ziren guztiak. Iluntzearekin batera, helduen txanda iritsi zen, izan ere, Antonio Sorarrainen biografiaren aurkezpen ekitaldia egin zuten Don Juanenan. Herri afariaren ostean, trikitixarekin eman zieten alkizarrek jaien lehen egunari amaiera. Igandera bitarte atsedetik hartzeko denborarik ez da egongo Alkizan. Horretarako denbora hurrengo astean izango dute herritarrek, baina hilaren 15ean, jaien azken eguna ospatzera irtingo dira berriro ere kalera.

Zizurkilen festak herenegun hasi ziren, Melokotoiaren aurkezpenarekin. Atzo goizean, jubilatuna izan zen protagonismo guztia, lehenik jokoekin eta ondoren bazkariarekin. Arratsaldean, haurren eromena etorri zen, Zizurkilen Euskal Herriko pailazo arrakastatsuenek geldialdia egin baitzuten. Pirritx, Porrotx eta Marimototsen emanaldiaren ostean,

buruhandien txanda izan zen. Jaietako bigarren egunari amaiera emateko, gau giroa alaitzera DJ Bull irurarra hurbildu zen Zizurkilera. Sei egun iraungo duten festak, astelgehenean amaituko dira.

Gaur, lau txupinazo gehiago

Bedaion, Elduainen, Lizartzan eta Tolosako Izaskun auzoan, gaur hasiko dituzte jaiak, eta egitarau oparoak antolatatu dituzte igandera bitarte.

Bedaion 20:30ean botako dute txupinazoa, eta ondoren zahagi ardoa eta Elustondo anai-arrebekin erromeria egongo da.

Elduainen herriko txikiak antzerkia eskainiko die herritarrei, txokolatada eta buruhandien aurretik, hau da, 17:30ean. Gauak eta goizak bat egiten dutenean, 00:00etan, burruna jaia eta

disco parrandaz gozatzeko aukera egongo da.

Lizartzan, lehen egunean, pilota partida, kalejira eta haurren danborradaz gozatzeko aukera egongo da, 18:00etatik aurrera eta herri afariaren aurretik. Gauean helduek hartuko dituzte danborrak, Skasti taldearen kontzertua baino lehen.

Tolosako Izaskun auzoko jaiak dagokienez, 18:00etan jaurtiko dute txupinazoa. Txokolatada, buruhandiak eta trikipoteoa egongo dira arratsaldean. Gauean, danborrada eta kontzertuen txanda izango da. Laket eta Ibarako Kantaflor taldeek hartuko dute jaietako lehen gaua alaitzeko ardura.

Tolosaldeko sei kokaleku hauek jaien egitaraua, oso-osorik, www.tolosaldea.hitza.info webgunean dago zintzilikaturik.

→ Laburrak

Ziotza pilota eskolaren deialdia, gurasoei

ZIZURKIL › Ziotza pilota eskola ikasturtea hilaren 17an hasiko da. Hilaren 11an, asteartean, gurasoei bilera egingo dute pilota eskolako arduradunek, ikasturte berriaren nondik norakoak eta gurasoek izan ditzaketen zalantzak argitzeko. Batzarrariarte Jatetxean izango da, 19:00etan. Ziotzan aurre benjaminetatik hasi eta kadete maila bitarteko haurrak aritzen dira, eta izena emateko epea oraindik zabalik dago. Horretarako, 609 43 12 65 telefono zenbakira deitu beharko da.

Vivonnerako martxaren inguruan bilera, hilaren 11n

IBARRA › Herrira mugimenduk urriaren 12an Vivonnera martxa antolatuta du. Bertako espetxean aurkitzen da Maite Aranalde euskal preso ibartarra. Bidaieren inguruan hitz egiteko hilaren 11n bilera egingo dute Ibarako kultur etxean, 19:00etan.

Irrintzi elkartearen azoka berezia, bihar Txerminen

VILLABONA › Irrintzi elkarteak antolatuta, bihar, Ohiko Produktuen XVII. Azoka egingo da Txermin Ikastolan. 09:00etan zabalduko dituzte ateak azokak, 14:00etan ixteko. Jaki desberdinen postuekin batera, elkartearen arteko isipu gisatu lehiaketa jokatu da. 12:00etatik aurrera egongo da dastatzeko aukera.

Donostia Hiria Rallyrako boluntarioak behar dira

ZIZURKIL › XIV. Donostia Hiria Rallya pasako da Zizurkil eta inguruko herrietatik, hilaren 29an. Antolatzaileek, bailarako herritarrei laguntza eskatu diete, lasterketa baldintza egokietan korritzeko eta gainerako beharrak estaltzeko boluntarioak behar dituztela azalduaz. Interesa dutenek, 626 01 53 86 telefono zenbakira deitu dezakete.

Udalbatzaren ohiko bilkura, hilaren 12an

AMASA-VILLABONA › Udalbatzak hilaren 12an, asteazkenean, ohiko bilkura egingo du udaltxeko batzar aretoan, 19:00etatik aurrera. Bertan, besteak beste, 2011. urtean eman ziren diru laguntzak jenduraren erakusteari buruz EAJ taldeak aurkeztutako proposamena aztertuko da, Olaederra kiroldegian dauden kirol instalazioen kudeaketaren emakidarako Kirolzer SL enpresarekin sinatutako kontratua urte betez luzatzeko proposamenarekin batera.

Udalaren webgunean burujabetasunaren bideoa

IBARRA › Ibarren burujabetasunaren bigarren mendeurrena ospatu zen 2002an. Hilaren 8an, Tolosatik burujabetasuna lortu zuela 210 urte beteko dira. Herritarrek 2002. urtean gertakari historiko hori ospatzeko, antzerkia egin zuten, eta orain, antzerki horren zati bat www.ibarrakoudala.net webgunean zintzilikatu dute.

Ondo pasa jaietan!

ERNIOBIDEA, 7 ZIZURKIL Tel.: 943 69 62 57

Bertako informazioari bertako produktuk

Egin HITZAREN harpidedun irailaren 3tik urriaren 26ra eta jaso artzai gazta, Idiazabal jatorri izenarekin, OPARI

Hitzaren harpidedunen artean, bi pertsonentzako asteburu baterako egonaldia zozkatuko dugu

Artizano nekazalariak
Zemiza, 46
HONDARRIBA (Gipuzkoa)
Tel: 943 642 337 / 955 721 834
www.rekatur.net/artizano

hitza

Finalerako materialarekin «gustura» geratu dira

Patxi Zeberio eta Javier Urrizak bihar jokatu dute Kutxa Torneoako finala, Galarreta pilotalekuan

Eneritz Maiz Elduain

Patxi Zeberio eta Javier Urrizak atzo aukeratu zituzten finalean erabiliko dituzten sei pilotak. Kutxa Torneoako finala bihar jokatu dute, Galarreta pilotalekuan. Oriamendi2010eko Kike Elizalde jarritako pilotetatik aukeratu zituzten, eta biak «gustura» geratu ziren aukeraturako pilotekin. Nahi zituzten pilotak aurkitu dituztela adierazi zuten.

Patxi Zeberio elduaindarrak 133 gramoko bi pilota eta 130 gramoko beste bat bereiztu zituen saskitik. Urrizak, ordea, arinagoak diren pilotak aukeratu zituen: 132, 131 eta 125 gramoetakoak.

Zeberio eta Urrizak, larunbatetako partida %50an dagoela uste dute. Bien artean ez dute faborito garbirik ikusten.

Zeberio bi aldiz irabazi du txapela, 2006 eta 2007. urteetan, eta bere seigarren finala izango da biharkoa. Partida 17:00etan hasiko da eta ETBKsat kateak zuzenean emango du.

• ibarraldea@hitza.info



Urriza eta Zeberio finalerako aukeraturako materialarekin. MAIALEN ANDRES

Joxean Tolosa Txapelketaren azken txanpa, igandean

XXXIII. Joxean Tolosa Txapelketa bukatzeaz da; 17:00etatik aurrera jokatu dituzte finaleko hiru partidak

E. Maiz Amezketa

Joxean Tolosa Txapelketak udan ez du atsedenik izan, eta kanporaketa guztiak jokatu ostean, igandean finalak jokatu dituzte. 17:00etan emango zaio hasiera, eta hiru partida doan ikusteko aukera izango da, Amezketan.

Finalistak nortzuk diren erabakita daude. Kadeteen mailako azken partida atzo arratsaldean jokatu zen, eta erredakzioa ixterako partida erabaki gabe zegoen. Bakaikoa etxarriarra da kadeteen mailako lehen finalista, eta Errandonea edo Altuna izango du aurkari. Gazteen mailan, Elustondo berrobiarra eta Irribarria

aramarra ariko dira nor baino nor. Azken partida nagusia izango da, eta alde batetik, Rezusta bergararra eta bestetik, Arzelus donostiarra izango dira.

Xalton Zabala antolatzaileak argitu duenez, aurtengo txapelketa «oso ondo» ateratu da. Gorabehera batzuk izan direla ekarri du gogora: «Gazteen mailan, pilotari batzuk uste baino lehen geratu ziren kalean, esaterako, Olano aresoarra. Batzuegandik gehiago espero zen».

Nagusien mailan «gaztetasuna» izan dela nagusi nabarmendu du Zabalak. Pilotari gazteak ibili dira puntaren puntan. Rezusta gaztea «oso indartsu» iritsi dela nabarmendu du, eta Arzelusen aurkako partida «oso parekatua» izango dela aurreikusten du. Donostiarra hiru aldiz iritsi da finalera, baina ez du lortu txapela janzterik.

Eta kadeteen mailan, berriz, Bakaikoaren erakustaldiak eka-

rritu ditugu gogora: «Izugarrizkoa izan da, eta ia guztiak harrirtuta utzi gaitu. Finalera iristen denak iristen dela, oso zaila izango du partida irabaztea», dio.

Gazteen mailako partidarako berriz, Irribarria ikusten du faborito, txapelketan zehar erakutsi duen mailan jokatzeko badu behintzat.

Erantzun ona partidetan

Xalton Zabala antolatzaileak adierazi duenez, jendeak, orokorrean bikain erantzun du. Jende asko animatu da partidak ikustera. «Pilotari gazteak eta berriak ikustea jendeari gustatzen zaio», gaineratu du.

Finaleko partidez, berriz, «ikuskitun polita izaten da, eta doan kirolaz gozatzeko aukera ederra izango du nahi duenak», esan du Zabalak. Igandean, 17:00etatik aurrera, Amezketa pilotalekuko harmailak ziur jendez beteko direla.

Juan Mari Mujika preso amezketarra Espainiaratu dute

Gaur epailearen aurretik pasa beharko du; uztailearen 13an onartu zuten bere aurkako euroagindua

E. Maiz Amezketa

Juan Mari Mujika preso amezketarra atzo arratsaldean Espainiaratu zuten. Paueko auzitegiak uztailearen 13an erabaki zuen Juan Mari Mujika amezketarraren kontrako euroagindua onartzea, eta beraz, Espainiaratzeko agindua eman zuen. «Espainiaratzeko eguna uste baino gehiago luzatu da. Azken bi asteak zain pasa ditugu», adierazi du familiak. Abokatuari, asteazkenean jaki-

narazi zioten, atzo arratsaldean eramango zutela Madrilera.

Abokatuarekin egoteko aukera izango du Mujikak, eta gaur, epailearen aurretik pasa beharko du, Espainiako Auzitegi Nazionalan.

Frantziako Poliziak, Juan Mari Mujika Barkoxen atxilotu zuen. Polizia operazioa Guardia Zibilarrekin batera egin zuen Frantziako Poliziak. Ataundarra da Mujika, baina urte askoz bizi izan zen Amezketan. Domintxainera (Zuberoko) joan zen ondoren, bizitzera. Polizia iturriek, 2001. urteko hauteskunde kanpainen, orduko Espainiako presidentea, Jose Maria Aznar, hiltzeko atentatu saioan misilak jaso eta entregatzeko ardura izatea leporatzen diote.

• alegi@hitza.info

Azokan postua jartzeko izena eman beharko da

Alegiako Azoka Berezia hilaren 30ean izango da; barazki eta artisauetz gain, herriko dendek ere aukera izango dute

E. Maiz Alegia

Seigarren urtez antolatuta dute Alegiako Azoka Berezia. Hilaren 30ean, igandean, 11:00etatik 14:00etara izango da. Urtero bezala, hala nahi duten alegiarrek azokan euren postua jartzeko aukera

izango dute. Izena emateko azken eguna hilaren 21a izango da. Kultur etxera deituz edo bertara joan da jakinarazi beharko da. Barazkiak eta artisau produktuak ikusi eta erosi ahal izango dira azokan bertan.

Aurten, ordea, berrikuntza gisa, herriko dendariei ere azoka egunean postua jarri eta euren eskaintza kalera ateratzeko gonbita luzatu nahi die Kultura Batzordeak. Dendariek ere kultur etxera deitu edo gerturatu beharko dute euren asmoen berri emateko antolatzaileei.

Ur festa izango da, gaur, Leitzako igerilekuan

Gozamenez Beteriko Gaua izango da 22:00etatik 00:00etara; alkoholik gabeko ur festa izango da

E. Maiz Leitza

Gaur, azken urteetan egin moduan, Gozamenez Beteriko Gaua izango da Leitzako igerilekuan. Ur festa egingo dute 22:00etan hasi eta 00:00ak bitartean. Herri-erantzutako gonbidatu dituzte.

Jaiaz gozatu nahi duenak bi euro ordaindu beharko du sarre- ra, eta trukean alkoholik gabeko edaria jasoko du. Uretan jokoak egiteko aukera izango da, eta festa giroan sartzeko Oskar Estanagak abestu egingo du.

Denboraldi amaiera

Igandean, hilaren 9an, igerilekuko denboraldiari amaiera emango zaio. Hori dela eta, herritarrei, bertan dituzten aukerak jasotzera joateko diea egiten diete igerilekuko arduradunek.

• leitzaldea@hitza.info

Irudia ◊ Ibarra**GOGOTSU EKIN
DIOTE GAZTEEK
IKASTURTEARI**

Ez dira malko gehiegi ikusi eta kexa askorik entzun. Ikasle gehienak gustura joan dira ikasturte berriko lehen eskola egunera. Udako oporraldia primeran igaro ostean, liburuen artean murgiltzeko unea iritsi zaie. Herenegun ireki zituzten ateaik Leitzako eta Aresoko ikastetxeek, eta atzo izan zen Tolosaldeko ikastetxeen —irudian, Ibarra-ko Uzturpe ikastolako LH3 eta 6ko ikasleak— txanda.rr.



Ibarra-ko jaietan jende ugari izan zen Alurren emanaldia ikusten. HITZA

**Alurr dantza eskolan
irailean ere izena
emateko aukera**

Iraila amaitu bitarte matrikula daiteke; gaur, bihar eta etzi emanaldiak izango dituzte ibartarrek

Iñigo Terradillos Ibarra

Ibarra-ko Alurr dantza eskolan urrian hasiko dira ikasturte berriarekin. Bertan parte hartu nahi dutenek oraindik ere badute izena emateko aukera, irailla bukatu bitarte.

Ibarra-ko kultur etxean eskura daitezke matrikula orriak. Informazio gehiagorako edo zalantzak argitzeko kultur etxera dei daiteke, 943 67 03 99 zenbakira, edo Alurr dantza taldearen zenbakira, 635 757 048. alurr@alurr.net helbidera mezua bidaliz, edo Alurren webgunera (www.alurr.net) joz ere informatu daiteke.

Maila ezberdineko taldeak dituzte dantza eskolan. Azpimarragarria da Aiert Beobide dantzari eta koreografo profesionalak eskolak ematen dituela bertan. Beobide Aukeran dantza taldean ibi-

litakoa da, eta egun, Haatik konpainiaren zuzendaria da. *Oinazez eta Izanak Dirau*, 1512 zuzendu ditu Alurrekin. Bestalde, aurten, berrikuntza bezala, LH4, LH5 eta LH6ko mutilen taldea izango da irakasle profesional batekin.

Datozen emanaldiak

Alurrek emanaldi ugari izan ditu aurtengo udan, Altzon, Oiarzunen, Donostian, Berastegin edota Ibarra-ko festetan, esaterako. Ibartarrek adierazi dutenez, euren helburu nagusiak bete dituzte, «dantza egitea eta ahal den jende gehienara iristea dantza eginenez. Azkeneko lanarekin, *Izanak dirau*, 1512, gainera, ezkutuan egon den 500 urteko historia nolabait azalera lortu dugula uste dugu». Ibarra-ko festetan euren emanaldia ikustera gerturatu zen «jendetza» azpimarratzen dute, guztiei eskerrak emanez.

Irailean ere dantzan jarraituko dute. Donostian, Konstituzio plazan, ariko dira gaur, 20:00etan; Lekeitioan, berriz, bihar, *Izanak Dirau* lanarekin; eta Alkizako plazan, etzi izango dira, 19:00etan, *Izanak eta Banintz* lanekin.

**Taloak egin eta dastatzeko
aukera izango da Leitzan, etzi**

Talo Egunaren barruan, azoka, tailerrak, lehiaketa, erakusketa eta herri kirol probak izango dira

Iñigo Terradillos Leiza

Leitzan etzi izango den Talo Eguna festa borobila izateko ez da osagirik falta. Jatekoa izango da, talo nahiz beste hainbat produktu, ikusteko hamaika postu egongo dira, gaztetxoentzako ekintzak, eta herri kirolak. Beraz, aurreko urteetan izan duen harrera ona espero dute aurtengoan ere.

Plazaola Partzuergo Turistikoko eta Leitzako Udalak Nafarroako Gobernuako Kultura eta Turismo sailaren laguntzarekin antolatzen dute Talo Eguna, «gure baserrietan mendeetan zehar oinarritzko elikagaia izan den produktua berreskuratuz eta sustatzeko helburuz».

Aurten ere, Leitzako Saralegi eta Villabona talogileek irekiko dute azoka. Bertan, baserriko tresneria eta animaliak egongo



Pasa den urtean oso jendetsua izan zen Talo Eguna. SARA GOMEZ

dira, eta artisauen 12 postu. Era berean, taloekin egindako platerak erakutsiko dituzte zonaldeko tabernak eta jatetxeek. Etxeko gazteek talo nola egiten den ikasteko aukera ere izango dute, eta gurdian ere ibilaldia egin ahaliko dute. Talo lehiaketa ere izango da eguerdian, nahi duen orok parte hartu ahaliko duelarik, sari garrantzitsuak irabazteko aukerarekin. Goiza osatzeko, txinga txapelketa eta aizkora erakustaldia egingo dute.

↓ **Egitaraua**

- **10:00.** Azokaren irekiera. Leitzako talogileak eta artisauak; talo egiteko eta baserriko tresneria; baserriko animaliak; haurrentzat gurdi ibilaldiak.
- **11:00-13:30.** Talo lehiaketa; taloekin egindako plateren erakusketa eta talo tailerra.
- **12:00.** Gizezkoen Euskal Herriko Txinga Txapelketa eta aizkora erakustaldia.

📍 **Hilberriak****ESKELAK****IZUNTZ
ACUÑA
URRA**

Beti izango zaitugu inoiz baino bertako, gure bihotz xokoan, gure lagun

Langaitz Ikastola

ERRENTERIA-ORERETA, 2012ko irailak 7

943-65 56 95

tolosaldean@hitza.info



30°
17°

OSTARTEAK
ARRATSALDEA ZAPARRADAK
BEROENA 29°
HOTZENA 17°

Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.M.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Rebeka Calvo
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@hitza.info
Webgunea: tolosaldea.hitza.info

Zuzendariordea: Imanol Garcia Landa. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitateak: 661 678 818 tolosa@bidera.eu
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@hitza.info
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@hitza.info
Anoeta/Leizta: 687 410 022. anoeta/leizta@hitza.info
Ibarraldeak: 687 410 118. ibarraldeak@hitza.info
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@hitza.info
Leiztaldea: 687 410 118. leiztaldea@hitza.info

Tolosa Herria Hedabideak SM-ko kideak:

BERTAKO HEDABIDEAK



Galtzaundi euskara taldea



eta Tolosaldeko eta Leiztaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Altzo, Amezketa, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidegoian, Elduain, Hernialde, Ibarra, Irura, Larraul, Leitza, Lizartza, Orendain, Tolosa, Villabona eta Zizurkil

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

Agenda

AZOKAK

■ **Amasa-Villabona.** Elikagaien XVII. Azoka, bihar, 09:00etatik 14:00etara, Txermingo Ikastolan. 12:00etan, XVIII. Isats Gisu-tuaren Lehiaketako partaideek prestatutakoa aurkeztu beharko dute.

DEIALDIAK

■ **Tolosa.** DYA elkarteak Osasuna eta Istripuen Prebentziorako Astea antolatu du aste honetarako. Gaur, 19:00etatik 21:00etara, *Zure bihotza zain-tzea* hitzaldia izango da Larra-mendi kalean dagoen egoitzan. Izena emateko irakaskuntza.eskola@DYA-gipuzkoa.com helbidera idatzi edo 943 46 46 22 zenbakira deitu behar da. Bihar, 12:00etatik 13:00etara, moto istripu baten itxura egingo dute egoitzaren ondoan.

■ **Tolosa.** Tolosa Merkat proiektuaren barruan sustatu duten negozio-ideien lehiaketa dela eta, bihar, 12:00etan, Zerkau-sian *Oh Yeahh!!* izeneko *flash-mob*-a egingo dute.

■ **Tolosa.** Bonberenea Sutan jaialdia antolatu du irailaren 15erako Bonbereneak. Sarrerak internetez eskuratu daitezke, sarrerak@bonberenea.com helbidera idatziz, edo Tolosako ondorengo tabernetan: Eguzki, Orbela, Denak eta Mescal. 15 euro balio du sarrerak eta ondorengo musika taldeak izango dira Bonbereneako futbol-ze-

lailan: Glaukoma, Matxura, Berri Txarrak, Gas Drummers eta Gose. Etxe barruan Olarius eta Brothers rock DJ's izango dira.

■ **Tolosa.** 16:00etatik 20:00etara, kultur etxean izango dira Udaberri Dantza Taldeko kideak haurren ikastaroetako izen-emateak jasotzeko. 3 eta 15 urte bitartean dituztenek eta dantza tradizionala ikasi nahi dutenak dute izena emateko aukera.

■ **Tolosa.** Iturriza jubilatuen elkar-teak zabalik du 2012ko Udazkeneko Jokoetan izena emateko zerrenda. Hauek dira joko motak: tutea, puntto, musa, toka eta xakea. Izena elkartearen bulegoan eman daiteke, 10:00etatik 12:00etara, eta as-

telehenetik ostiralera. Epea irailaren 12an bukatuko da.

■ **Ibarra.** Igandean, Tolosaldean Izaskungo Andre Mariaren eguna ospatuko dute. Izaskungo Santutegian 11:00etan meza izango da, Santa Maria kaperak lagundurik.

ZINEMA

■ **Asteasu.** Jon Maiaren *Gazta zati bat* dokumentala, 21:30ean, herriko plazan. Ebia kultur taldeak antolatu du emanaldia.

■ **Tolosa.** Leidor aretoan, igandean, 17:00etan, *Madagascar 3*, eta 19:30ean, *El Skylab*; astelehenean, 20:30ean, *El Skylab*. Azken saio hori ikuslearen egunean izango da.

Farmaziak

GAUR

■ **Tolosa.** Egunekoa: Bengoetxea, E; Kale Nagusia, 7; 943 67 06 48. Gauekoa: Santamaria, I; Nafarroa Etorbidea, 2; 943 65 46 10.

■ **Leitza.** Campos, M.Z. Elbarren, 52. 112.

BIHAR

■ **Tolosa.** Morant, R. Zabalarreta lorategiak, 1. 943 67 38 49.

■ **Leitza.** Campos, M.Z. Elbarren, 52. 112.

ETZI

■ **Tolosa.** Olarreaga, I. Korreo kalea, 2. 943 67 01 28.

■ **Leitza.** Campos, M.Z. Elbarren, 52. 112.

ETZIDAMU

■ **Tolosa.** Bengoetxea, E. Kale Nagusia, 7. 943 67 06 48.

■ **Leitza.** Larraia, M.I. Elbarren, 95. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esan-en eta iritzien erantzukizunik.

Agurrak



ZORIONAKI!

Javi eta lurre. Bihar ezkonduko dira. Ondo pasa eguna, familiaren partetik.



URTE ASKOAN!

Hegoi eta Izadi Mujika Labaien (Amezketeta). Gaur bi urte. ZORIONAKI!



Ireki atea Zuntzari

15Mb-ko DUOa

+ Finkoetarako deiak, 24 orduz,

16'9 € hil
urtebetez

Alta (go-et) eta instalazioa **DOAN**
Helmen handigoko Wi-Fi N Kable-modema, abiadurik handienarekin. **DOAN**
Mugikorra gurekin baduzu, Internet zure mugikorrean **DOAN** eta **BETIHO**

Orain, mugikorretarako deiak barne

logika line
943 31 86 11
San Francisco, 19 Tolosa



San Francisco has a special offer: when you sign up for 18 or 24 months, you can get the modem and the installation for free. This offer is available for the first 1000 customers who sign up. The offer is subject to availability. The offer is available for the first 1000 customers who sign up. The offer is subject to availability. The offer is available for the first 1000 customers who sign up. The offer is subject to availability.